

**BARAKALDO-SESTAO ESIko ZUZENDARI GERENTEAREN 56/2014
EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN DEN ZERBITZU-ERAKUNDEKO
II. EUSKARA-PLANA 2013-2019 EPERAKO.**

67/2003 Dekretuak, martxoaren 18koak, Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzekoak, finkatu ditu Ente Publikoaren Euskara Plana arautzeko oinarriak.

Dekretu horrek agintzen duenari jarraikiz, lehenbiziko planifikazio-epea amaitu eta helburuen betetze-mailaren ebaluazioa egin ondoren, Osakidetzako II. Euskara Plana —administrazio-kontseiluak 2013ko abenduaren 3ko erabakiaren bidez onartua— prestatu da.


Bestalde, Osakidetzako zuzendari nagusiaren 2/2014 Aginduak, zerbitzu-erakundeetan Osakidetzako II. Euskara Plana abiarazteari buruzkoak, dio Osakidetzako zerbitzu-erakunde bakoitzak idatzi eta onartu behar duela, zuzendariaren edo zuzendari gerentearen ebazpen bidez, bere jardueraren eremuan Osakidetzako II. Euskara Plana abiarazteko eta gauzatzeko programa.

Honenbestez, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legeak (ekainaren 26ko 8/1997 Legea) eta Osakidetzako Estatutu Sozialak ezartzen dituen Dekretuak (azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua) ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

ERABAKI DUT:


Lehenik.- Barakaldo-Sestao ESI n Osakidetzako II. Euskara Plana (2013-2019) abiarazteko eta gauzatzeko programa onartzea, Ebazpen honetako gehigarriei jarraikiz.

Bigarrenik.- Onartzea eta bere gain hartzea erakunde honek, ebazpen honen bidez, Osakidetzako II. Euskara Plana, eta II. Plan horretan jasotako euskara normalizatzeko irizpide eta neurri guztiak aplikatzeko eta garatzeko erabakia eta konpromisoa hartzea, dagokion jardueraren eremuan eta erakundearen asistentzia-izaera eta ingurune soziolinguistikoa aintzat hartuta.




Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, azaroaren 26ko 30/92 Legea aldatzen duen 4/99 Legeari jarraikiz (Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Barakaldon, 2014ko maiatzaren 30ean



Osakidetza
BARAKALDO-SESTAOKO ESI
OSI BARAKALDO-SESTAO
PERTSONALA
PERSONAL

Izpta.: Julen BALLESTERO ZARRAGA
BARAKALDO-SESTAO ESIko ZUZENDARI GERENTEA



RESOLUCIÓN 56/2014, DEL DIRECTOR GERENTE DE LA OSI BARAKALDO-SESTAO, POR LA QUE SE APRUEBA EL II PLAN DE EUSKERA DE ESTA ORGANIZACIÓN DE SERVICIOS PARA EL PERIODO 2013-2019.

El Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza, establece las bases que han de regular el Plan de Euskera del Ente Público.

En aplicación de lo previsto en dicho Decreto, una vez finalizado el primer período de planificación y realizada la correspondiente evaluación del cumplimiento de objetivos, se ha elaborado el II Plan de Euskera de Osakidetza, aprobado mediante Acuerdo del 3 de diciembre de 2013 de su Consejo de Administración.

Por otro lado, la Instrucción 2/2014, de 10 de enero de 2014, del Director General de Osakidetza, de puesta en marcha del II Plan de Euskera de Osakidetza en las organizaciones de servicios, dispone que cada organización de servicios de Osakidetza deberá redactar y aprobar, mediante resolución del Director o Directora Gerente, su programa para la puesta en marcha y la materialización del II Plan de Euskera de Osakidetza en su ámbito de actuación.

En su virtud, y de conformidad con las atribuciones competenciales recogidas en la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi y en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza,

RESUELVO:

Primero.- Aprobar el Programa para la puesta en marcha y la materialización del II Plan de Euskera de Osakidetza (2013-2019) en la OSI Barakaldo-Sestao, según lo contenido en los Anexos de la presente Resolución.

Segundo.- Aceptar y asumir mediante la presente resolución por parte de esta



Organización el II Plan de Euskara de Osakidetza, así como adoptar la decisión y el compromiso de aplicar y desarrollar, dentro de este ámbito de actuación, y conforme al carácter asistencial y al entorno sociolingüístico de la organización, todos los criterios y medidas de normalización de uso del euskara recogidos en dicho II Plan.

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación, de conformidad con la Ley 4/99, de modificación de la Ley 30/92 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Barakaldo, a 30 de mayo de 2014


Osakidetza
BARAKALDO-SESTAO KO ESI
OSI BARAKALDO-SESTAO
PERTSONALA
PERSONAL

Fdo.: Julen BALLESTERO ZARRAGA
DIRECTOR GERENTE DE OSI BARAKALDO-SESTAO

OSAKIDETZAREN II. EUSKARA PLANAREN I. ERANSKINA (2013-2019)

BARAKALDO-SESTAO ESIan OSAKIDETZAREN II. EUSKARA-PLANEKO NORMALIZAZIO-NEURRIAK: ERANTZUKIZUNAK, ZEHAZTAPENAK ETA JARRAIPENA

Eranskin honetan jasotzen dira 2013ko abenduaren 3an Osakidetza Kontseiluak onartutako Euskara Plan Orokorrean jasotzen diren neurrien zehaztapen eta egokitzapenak, Barakaldo-Sestao ESIaren ezaugarriei egokituta.

- (1) Kargua / arduraduna / unitatea (neurria ezarri, garatu eta jarraipena egiteko)
- (2) Neurriak abian jartzeari buruzko zehaztapenak (neurriaren azalpen laburra, jardueren errenkada, komunikazioa, inplikaturako agenteak, aplikatzeko modua,...)
- (3) Lortu beharreko helburuei eta lortzeko jarritako datai buruzko zehaztapenak
- (4) Neurrien jarraipena egiteari buruzko zehaztapenak: modua, maiztasuna, neurri zuzentzaileen ezarpena,...

1. KAPITULUA: IRUDIA ETA KOMUNIKAZIOA

Atala	Arduradunak (1)		Neurrien abiarazteari buruzko zehazpenak (2)	Helburuei eta haiek lortzeko datai buruzko zehazpenak	Jarraipena
	Zuzendaritza eskuduna	Kargua eta/edo arduraduna eta/edo unitatea			
1.1. Errotulazioa 1.2. Kartelak 1.3. Paperak	Ekonomia-zuzendaritza	-Zerbitzu Orokorren arduraduna. -Erdi-mailako arduradunak	-Orain arte hartutako neurriak aztertzea eta errotulaziorako, karteletarako eta paperetarako protokolo bat sortzea, II. Euskara Planaren arauetan eta Osakidetza Identitate Korporatiboaren Eskuliburuan	-Plana onartu ondoren, lehenbiziko urtean: berrikustea eta zuzentzea	-Errotulazioa, kartelak eta paperak urte oro berrikustea.

		(LMAUBak, zerbitzuburuak, gainbegiraleak...)	oinarritua. -Erdi-mailako arduradunei jakinaraztea		
1.4. Internet, intraneta eta sare sozialak	Gerentzia	Intranetaren kudeatzaileak	-Edukietarako sarbidea eta nabigagarritasuna bermatzea bi hizkuntza ofizialetan. Menu eta eduki nagusi guztiak bi hizkuntzatan izango dira. -Intranetaren kudeatzaileei jakinaraztea II. Euskara Planeko 1.4 atalean jasotako arauak	-Plana onartu ondoren, lehenbiziko urtean: nabigagarritasuna lortzea bi hizkuntza ofizialetan.	-Urteroko berrikustea
1.5. Aldizkariak eta buletinak	Gerentzia	Buletinaren eta aldizkariaren arduradunak	-Buletina eta aldizkaria elebidunak izango dira, eta, beharrezkoa denean, Euskara Planarekin lotutako albisteak izango ditu euskara hutsean. -Osatuberri aldizkaria paperean banatzen jarraituko da —profesionalei eta paziente/erabiltzaileei zuzendua—, itxarongeletan, langileen toki komunetan eta abarretan eskuragarri egoteko.	-Zenbaki guztietan egiaztatu behar da irakurleak hizkuntza hautatzeko aukera baduela	-Zenbaki guztiak
1.6. Iragarkiak, publizitatea eta kanpaina instituzionalak	Gerentzia	Kasu bakoitzeko arduradun zehatzak	Euskara eta gaztelania erabili behar dira iragarki eta publizitate-kanpaina guztietan.	-Irizpideak betetzea	Iragarki eta kanpaina guztiak
1.7. Ekitaldi publikoak, jardunaldiak...	Gerentzia	Kasu bakoitzeko arduradun zehatzak	-Ekitaldi, jardunaldi, aurkezpen, mintegi eta abarren deialdietan eta programetan, ongietorri eta agur guztietan, sarreretan, laburpenetan, dokumentazioan eta abarretan euskara erabiltzen dela bermatzeko neurriak hartuko dira.	-Osakidetzak eskainitako aldi bereko interpretazio-zerbitzua erabiltzeko aukera aztertuko da, ekitaldiaren garrantziak hala eskatzen duenean.	Ekitaldi guztiak

1.8. Agurrak eta lehen esaldiak paziente eta erabiltzaileen harrera egitean	Zuzendaritza guztiak	Erdi-mailako arduradunak (LMAUBak, zerbitzuburuak, gainbegiraleak...)	-Hizkuntza ofizialetan arreta emateko protokoloa ("Euskararen ahozko erabilerari buruzko irizpideak") berrikustea eta zabaltzea, erabiltzaileek/senideek/pazienteek arreta zer hizkuntzatan jaso nahi duten identifikatzeko agurrak eta lehenbiziko hitzak euskaraz esanez. -Trebakuntza-ikastaroak egitea (bi urteko plana), <i>Harrera euskaraz</i> Lehen Mailako Arretako Gidak erabiliz. Gida horietan jasotzen dira erabiltzaileen harreran, gomendioak ematean eta abarretan gehien erabiltzen diren hitzak eta esamoldeak.	-Protokoloa berrikustea eta erdi-mailako arduradunei zabaltzea, eta, gero, haiek langileei zabaltzea planaren lehen urtean. -Neurri hori Trebakuntza-ikastaroekin lotuta ere aurreratzea.	-Neurri horren segimendua eta betetze-mailaren ebaluazioa erdi-mailako arduradunek egingo dute, eta unitatearen ohiko lan-jarraibideetan sartuko dute
1.9. Megafonia eta erantzungailuak	Ekonomia-zuzendaritza	Megafonia eta erantzungailuak dituzten zerbitzuetako erdi-mailako arduradunak.	-Edozein unitatetan, megafonia bidezko mezuak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, ordena horretan. -Megafonia erabiltzen duen unitateari mezu ohikoenen ereduei buruzko informazioa ematea. -Erantzungailu automatikoetako grabazioak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, ordena horretan.		-Unitatean megafonia erabiltzean arau hori betetzen den etengabe behatzea. -Erantzungailua egiaztatzea.

2. KAPITULUA: KANPO-HARREMANAK

Atala		Arduradunak		Neurriak martxan jartzeari buruzko zehazpenak	Helburuei eta haiek lortzeko datai buruzko zehazpenak	Jarraipena
		Zuzendaritza eskuduna	Kargua eta/edo arduraduna eta/edo unitatea			
2.1. Paziente eta erabiltzaile kiko harremanak	2.1.1. Ahozko harremanetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak	Zuzendaritza guztiak	Erdi-mailako arduradunak (LMAUBak, zerbitzuburuak, gainbegiraleak ...)	-Hizkuntza ofizialetan arreta emateko protokoloa ("Euskararen ahazko erabilerari buruzko irizpideak") berrikustea eta zabaltzea, erabiltzaileen/senideen/pazienteen hizkuntza-aukera bermatu ahal izateko. -Lehentasuneko unitateetan (BAE), erabiltzaileak hautatutako hizkuntzan bermatuko da arreta, lehen hitzak eta agurrak euskaraz eginez. -Ondorengo arretan, osasun-unitateetan eta administratiboetan, solaskideak hautatzen duen hizkuntza errespetatuko da, ahal dela. -Trebakuntza-ikastaroak eskainiko zaizkie (bi urteko plana) unitate guztietako profesionalei, Lehen Mailako Arretako Gidatan eta Osatuz bilduman oinarrituz.	-Protokoloa berrikustea eta erdi-mailako arduradunei zabaltzea, eta, gero, haiek langileei zabaltzea planaren lehen urtean. -Neurri hori Trebakuntza-ikastaroekin lotuta ere aurreratzea.	-Neurri horren segimendua eta betetze-mailaren ebaluazioa erdi-mailako arduradunek egingo dute, eta unitatearen ohiko lan-jarraibideetan sartuko dute
	2.1.2. Idatzizko komunikazioetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak	Zuzendaritza guztiak	Erdi-mailako arduradunak (LMAUBak, zerbitzuburuak, gainbegiraleak ...)	-Bi hizkuntza ofizialetan eman behar da paziente/erabiltzaileentzako idatzizko dokumentazio guztia, informazio-, asistentzia- edo administrazio-eremuetakoa. Eta pazienteek/erabiltzaileek egindako	-Idatzizko dokumentazioaren azterketan guztiek zuzendaritza guztiek hartuko dute parte, bakoitza bere arloan.	-Puntu honetan egindako lanaren segimendua, ESlaren Euskara Planaren Tarteko Ebaluazioaren

				idatziei Osakidetzara jo duten hizkuntza berean erantzungo zaie. -Pazienteei/erabiltzaileei ematen zaien idatzizko dokumentazioa aztertu behar da pixkanaka.		datuak erabiliz (2016ko abendua), eta lortzen diren emaitzen arabera behar diren neurriak ezartzea.
2.1.3. Komunikazio telematikoetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak	Gerentzia	Intranetaren kudeatzaileak	-Internet bidezko edo bestelako komunikazio-teknologiaren bidezko izapide guztietan, pazienteek/erabiltzaileek nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko aukera izango dute. -Eranskin honetako 1.4. puntuan ezarritakoa beteko da		-Neurri horren segimendua eta betetze-mailaren ebaluazioa intranetaren kudeatzaileek egingo dute, eta unitatearen ohiko lan-jarraibideetan sartuko dute	
2.1.4. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak zabaltea, aplikatzea eta haien jarraipena egitea	Zuzendaritza guztiak	Erdi-mailako arduradunak (LMAUBak, zerbitzuburuak, gainbegiraleak ...)	-Bilerak erdi-mailako arduradunekin irizpide horiek zabalteko lanaren berri emateko, eta unitatearen lan-jarraibideetan sar ditzaten. -Esku-orriak/diplotikoak egitea hizkuntza ofizialetan arreta emateko protokoloaren arabera. -Korporazio Gidaliburuetan oinarritutako Trebakuntza-ikastaroak; gidaliburuetan, pazienteekiko harremanetan gehien erabiltzen den hiztegia eta esamoldeak jasotzen dira.	-Euskara erabiltzeko irizpideen hedapenean eta haien jarraipenean inplikatu eta horretarako motibatu egin behar dira erdi-mailako arduradunak.	-Neurri horren segimendua eta betetze-mailaren ebaluazioa erdi-mailako arduradunek egingo dute, eta unitatearen ohiko lan-jarraibideetan sartuko dute	

2.2. Zerbitzu elebidunen eskaintza	Zuzendaritza guztiak	Erdi-mailako arduradunak (LMAUBak, zerbitzuburuak, gainbegiraleak ...)	-Arreta euskaraz egitea berma dezaketen profesionalen eta zerbitzuen azterketa egitea, eta neurri egokiak ezartzea profesional eta zerbitzu elebidunen identifikazio-proiektu korporatiboa, <i>Euskaraz bai sano!</i> , hedatzen eta finkatzen jarraitzeko.	-Osasun-zentroetan, erabiltzaileei mediku, pediatra edo emagin euskalduna hautatzeko aukera ematea. -Pixkanaka, espezialitate medikoetan euskarazko arreta bermatzea, herritarrei asistentzia-zirkuitu osoa euskaraz eskaintzera iristeko helburuarekin.	-Urteko programa-kontratua -Ebaluazio korporatiboak
2.3. Pazienteen lehentasunezko hizkuntza ahozko komunikazioan	Zuzendaritza guztiak	Erdi-mailako arduradunak (LMAUBak, zerbitzuburuak, gainbegiraleak ...)	-Osasun-zentroetan: paziente berrien altetan, medikua aldatzeko eskaeretan eta euskara erabiltzen duten erabiltzaileei galdetu behar zaie ea nahi duten beren datu pertsonalen artean informatikoki jasotzea ahozko harremanetarako bere hizkuntza-aukera zein den; baietz erantzuten badute, galdetu behar zaie bere lehentasunezko hizkuntza zein den. -Ospitalean: asistentzia espezializatu elebidunaren eskaintzan sartzen diren espezialitate mediko-kirurgikoak hartuko dira kontuan.	-Paziente batek euskara hartzen duenean lehentasunezko hizkuntza gisa, mediku, pediatra edo emagin euskalduna hautatzeko aukera emango zaio, betiere eskaintzen diren zerbitzu elebidunen eta osasun-zentroko profesionalak dituzten kupoen arabera.	Plangintza-aldi osoan

2.6. Enpresa hornitzaile, finantza-erakunde, administrazio, elkargo profesional eta abarrekiko harremanak	Zuzendaritza guztiak	Zuzendaritza guztiak	-Ahozko eta idatzizko komunikazioetarako ezarritako irizpideak, 2.1.1 eta 2.1.2 ataletan jasoak -Ahal den neurrian, euskarazko zirkuitu administratiboak ezartzea kanpo-enprekin: toki- eta foru-administrazioak eta administrazio autonomikoa, ikastetxeak, finantza-erakundeak, hornitzaileak...		Plangintza-aldi osoan
2.7. Kontrataturako zerbitzuei eta erositako produktuei buruzko hizkuntza-irizpideak	Ekonomia eta Finantza Zuzendaritza	Ekonomia eta Finantza Zuzendaritza	-Hizkuntza-baldintzak txertatu behar dira zerbitzu-kontratu guztietan, jendaurrean/langileentzat egin beharreko jardueretan (segurtasun-zerbitzua...) -Batez ere, hornigaien erosketan, baldin eta erabiltzaileek edo langileek irakurri behar dituzten idazkun, azalpen edo agiririk badute (osasun-asistentziako ekipamendua, kafe- edo elikagai-makinak, inprimagailuak, fotokopiagailuak, planak, txostenak...).	-Planaren ondoren kontratatzen diren zerbitzu guztiek hizkuntza-baldintza horiek bete behar dituzte.	-Programa-kontratua -Ebaluazio korporatiboak

3. KAPITULUA: BARNE-HARREMANAK

Atala		Arduradunak		Neurriak martxan jartzeari buruzko zehazpenak	Helburuei eta haiek lortzeko datei buruzko zehazpenak	Jarraipena
		Zuzendaritza eskuduna	Kargua eta/edo arduraduna eta/edo unitatea			
3.1. Laneko inguruneko hizkuntza-paisaia		-Ekonomia Zuzendaritza -Zuzendaritza guztiak	-Ekonomia Zuzendaritza -Lan-osasuna -Erdi-mailako arduradunak	Elebidunak izan behar dute: -Segurtasunarekin lotutako errotulazioa (larrialdiko irteerak, ebakuazio-planoak, su-itxalgailuak...) -Makina eta ekipamenduetako funtzionamendu-mezuak eta idazkunak (inprimagailuak, kafe-eta elikagai-makinak, erabilera asistentzialeko makinak edo tresnak...) -Lan-inguruneko errotulazioa eta kartelak (errotuluak, etiketak, fitxategiak, karpetak...)		-Errotulazioaren, kartelen eta paperen urteko berrikuspenetan (1.1, 1.2 eta 1.3 atalak), atal hau ere sartuko da.
3.2. Giza baliabideak	3.2.1. Langileekiko harremanak	-Gerentzia -Langileen Zuzendaritza	-Gerentea -Pertsonalaren zuzendaria	-Langileekin zuzeneko eta etengabeko harremana duten unitateetan (zuzendaritzak, pertsonaleko sailak, kudeaketa ekonomikoa, lan-osasuna, informatika, trebakuntza...), bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direla bermatzea, bai ahozko harremanetan (arreta presentziala eta telefono bidezkoa) bai	-Atal honi buruzko itemak sartuko dira profesionalen gogobetetze-inkestetan.	-Programa-kontratua -Profesionalen gogobetetze-mailaren inkesta

				idatzizkoetan (mezu elektroniko masiboak, gutunak, zirkularrak, eskaera-inprimakiak, kontratuak, izendapenak...)		
	3.2.2. Langileen lehentasunezko hizkuntza	Langileen Zuzendaritza	Langileen zuzendaria	-Barakaldo-Sestao ESIk langile guztiei jakinaraziko die beren datu pertsonaletan txerta dezaketela lehentasunezko hizkuntza, <i>Langilearen Ataria</i> aplikazio korporatiboan.	-Komunikazio-kanal horrek aurrera egiten duen neurrian, bermatuko da langile bakoitzak hautatutako hizkuntzan egingo direla izapideak.	Plangintza-aldi osoan
	3.2.3. Langile edo egoiliar berrien harrera	-Langileen Zuzendaritza	-Langileen zuzendaria Erdi-mailako arduradunak (LMAUBak, zerbitzuburuak, gainbegiraleak ...)	-Harrera Eskuliburua bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko da, eta hauei buruzko informazioa jasoko du:erabiltzaileen eta profesionalen hizkuntza-eskubideak, euskarazko arretaren irizpideak eta hizkuntza-gaitasuna hobetzeko aukerak.	-Harrera Eskuliburuaren edukien arduraduna.	Plangintza-aldi osoan
3.3. Trebakuntza	3.3.1. Etengabeko trebakuntza korporatiboa	Erakunde Zentrala	-Etengabeko trebakuntza korporatiboa -Barakaldo-Sestao ESIren trebakuntza-batzordea	-Etengabeko trebakuntza korporatiboak eskainitako ikastaroen koordinazioa, hedapena eta segimendua (hautagaiak aukeratzea, komunikazioa...)	-Areagotu egin behar da, pixkanaka, ikastaro-eskaintza.	Plangintza-aldi osoan
	3.3.2. Zerbitzu-erakundeek antolatutako berariazko trebakuntza	Langileen Zuzendaritza	Trebakuntza-batzordea	-Langile elebidunen portzentajera iritsi behar du, pixkanaka, Barakaldo-Sestaoko ESIren berariazko trebakuntzaren eskaintzak (tailerrak, ikastaroak...).	-Areagotu egin behar da, pixkanaka, ikastaro-eskaintza.	-Programa-kontratua

				-Euskarazko trebakuntza hori batez ere 1 lehentasuneko unitateetan bultzatuko da, baina baita 2 lehentasunekoetan ere.		
	3.3.3. Mediku eta erizain egoiliarren trebakuntza	-Langileen Zuzendaritza -Zuzendaritza Medikoa eta Erizaintzako Zuzendaritza.	-Langileen zuzendaria -Zuzendari medikoa eta erizaintzako zuzendaria.	-Trebakuntza espezializatua egingo duten mediku eta erizain egoiliarrei tutorea esleitzean, egoiliarren hizkuntza-lehentasuna izan behar da kontuan (batez ere unibertsitateko ikasketak guztiak edo parte bat euskaraz egin badituzte), eta neurriak hartuko dira trebakuntza guztia, edo gutxienez parte bat, euskaraz egin ahal izan dezan.	-Areagotu egin behar da, pixkanaka, egoiliarren euskarazko trebakuntza.	Plangintza-aldi osoan
	3.3.4. Euskalduntze-eta alfabetatze-ikastaroak	Langileen Zuzendaritza	Euskara Zerbitzua	-Barakaldo-Sestao ESIk orain arte bezala jarraituko du euskalduntze-ikastaroen eskaintza korporatiboa kudeatzen: egiten diren deialdien (DHL, FHL, uda, 4.HE...) koordinazioa, hedapena eta segimendua		-Ikastaro-deialdiak.
	3.3.5. Hizkuntza-hobekuntzako beste zenbait ikastaro			3.4. puntuan garatua		
3.4. Euskaraz lan egiteko trebakuntza		Langileen Zuzendaritza	-Euskara Zerbitzua -Trebakuntza-batzordea	-Barakaldo-Sestao ESIren Euskara Planaren Programaren III. eranskina garatzea eta ebaluatzea: "Zerbitzuak euskaraz emateko moduan dauden langileak elebitan lan egiten trebatzeko bi urteko plana (2014-15)" -Osakidetza argitaratutako Gidaliburu Korporatiboetan	-Barakaldo-Sestao ESIren Trebakuntza Programan sartzea.	-Bi urteko programa.

				oinarritutako trebakuntza-ikastaroak, zenbait kategoria profesionaleri dagozkienak.		
3.5. Baliabide informatikoak		Langileen Zuzendaritza	-Euskara Zerbitzua -Informatika -Trebakuntza-batzordea	-Langile elebidunei jakinaraziko zaie euskarazko ofimatika-programak instalatzeko eta erabiltzeko aukera dagoela, eta haiek erabiltzeko motibatuko dira langileak. -Osakidetzak Etengabeko Trebakuntza Korporatiboaren Programan sartuko du euskarazko ofimatika-programak erabiltzen ikasteko ikastaroen eskaintza. Ikastaro horien berri emango da Barakaldo-Sestao ESI.	-Barakaldo-Sestao ESIren Trebakuntza Programan sartzea.	Plangintza-aldi osoan
3.6. Komunikazio horizontala eta bertikala	3.6.1. Laneko hizkuntza	Zuzendaritza guztiak	Zuzendaritza guztiak	-Unitateetako programetan unitate bakoitzeko lanerako hizkuntza ezarriko da, eta neurriak hartuko dira lehentasuneko ahalik eta unitate gehienetan euskara laneko hizkuntza izatera irits dadin (batez ere 1 lehentasun espezifiko unitateetan).	-Plangintza-aldi osoan, pixkanaka.	-Euskara laneko hizkuntzatzat ezarri duten lehentasuneko unitateen kopurua.
	3.6.2. Hizkuntza ofizialen erabilera bileretan	Zuzendaritza guztiak	Zuzendaritza guztiak	-Lan-bileretan, lantaldeetan, batzordeetan eta abarretan euskara ahozko eta idatzizko harremanetan erabiltzea bultzatuko da (deialdiak, aktak, idatzizko materialak, ikus-entzunezkoak...)	-Deialdien, akten eta abarren ereduak egin behar dira.	Plangintza-aldi osoan

	3.6.3. Langileen arteko komunikazioetan euskararen erabilera sustatzeko proiektuak	Langileen Zuzendaritza	Langileen zuzendaria	-Langileen arteko harreman informaletan euskararen erabilera sustatzeko egin daitezkeen proiektuak eta jarduerak aztertuko dira (Mintzalaguna, Kafea euskaraz, Osatuberri aldizkarian parte hartzea, beste administrazio/talde batzuetako jarduerak...)		Plangintza-aldi osoan
--	--	------------------------	----------------------	---	--	-----------------------

4. KAPITULUA: HIZKUNTZA-KUDEAKETA

Atala		Arduradunak		Neurriak martxan jartzeari buruzko zehazpenak	Helburuei eta haiek lortzeko datei buruzko zehazpenak	Jarraipena
		Zuzendaritza eskuduna	Kargua eta/edo arduraduna eta/edo unitatea			
4.1. Hizkuntza-politika	4.1.2. Aitzindaritza, estrategia eta zeharkakotasuna	Zuzendaritza guztiak	Zuzendaritza guztiak	-Zuzendaritza osoak, gerentea buru duela, arduratu behar du Euskara Plana garatzeaz; gogotik bultzatu behar dute, eta haren aitzindari eta sustatzaile nagusi bihurtu, zeharkako era batean aplikatuz (agintekate eta -eremu guztiak baliatuz) zerbitzu eta unitate guztietara heldu arte. -Zuzendaritza bakoitzak arduratu behar du, dagozkio erdi-mailako arduradunekin batera, euskararen erabilera normalizatzeko berariazko programak gauzatzeaz. -Euskara Planaren normalizazio-helburuak eta -neurriak plan estrategikoan eta kudeaketa-planetan sartuko dira. -Programa Kontratuko kalitate-	Plangintza-aldi osoan	-Jarraipena, urteko programa-kontratuaren bitartez.

				betekizunetan txertatu behar dira helburu eta neurri horiek. -Euskara Planari dagozkion Programa Kontratuko adierazleak jasoko eta baloratuko dira. -Langileei Euskara Planaren berri emango zaie.		
	4.1.3. Hizkuntza-politikaren ebaluazioa (C atala)	Zuzendaritza guztiak	Zuzendaritza guztiak	-Planaren helburuen eta neurrien betetze-maila zein den jakiteko, ebaluazio partzial bat egingo da plangintzaren hirugarren urtea amaitzean, eta azken ebaluazio bat, plangintza-aldi osoa amaitutakoan. -2013-2019 plangintza-aldian, Barakaldo-Sestao ESI behin aurkeztuko da gutxienez Bikain hizkuntzaren kalitate-ziurtagiria lortzeko.	-2016ko ebaluazio partzial korporatiboa egindakoan, helburuak lortzeko hobekuntza-neurriak proposatuko dira.	-Urteko programa-kontratua. -Ebaluazio partziala (2016) -Azken ebaluazioa (2019)
	4.1.4. Hizkuntza-eskubideen urraketarekin lotura duten kexuen erregistroa eta jarraipena	Gerentzia	Gerentea	-Hizkuntza-eskubideen urraketarekin lotuta Behatokiak, Elebidetik edo zuzenean erabiltzaileen eskutik iristen diren erreklamazioak erregistratu, eta erantzun egin behar zaie. -Unitate edo zerbitzu bakoitzeko arduradunari dagokio bere alorrekin lotutako kexak argitzea, irtenbide bat bilatzea eta idatzizko erantzun bat ematea. Normalizazio-teknikariaren laguntza izango du.	-Osakidetza Giza Baliabideetako Zuzendaritzak protokolo bat adostuko du kexa guztien erregistroa eta segimendua egiten laguntzeko.	Plangintza-aldi osoan
4.2. Pertsonak		Langile Zuzendaritza	Langileen zuzendaria	-Osakidetza elebitasunari, hizkuntza-eskubideei eta normalizazio-prozesuan erdi-mailako arduradunek duten funtzioari buruz antolatutako trebakuntza-saioen kudeaketa. -Euskara Zerbitzuko teknikariek euskara-	-Izaera korporatiboko neurri horiek kudeatzea, garatzea eta haien segimendua egitea.	Plangintza-aldi osoan

				planei buruzko trebakuntza-saioetan parte hartzea, Euskara Zerbitzu Korporatiboak antolatutako "jardunbide egokien" ildoan. -Osakidetzak euskara sustatzeko antolatutako sentikortze-kanpainak kudeatzea. -Osakidetzak aintzatespen-politika bat ezarriko die euskararen erabileran edo sustapenean nabarmentzen diren langileei/zentroei/erakundeei.		
4.3. Baliabideak	4.3.1. Euskara Plana Garatzeko Batzordea	Zuzendaritza guztiak	Zuzendaritza guztiak	-Euskara Plana garatzeko batzorde bat sortuko da, zuzendari gerentearen ebazpen bidez. Sei hilean behin elkartuko da. -Batzorde horrek urtean behin Euskara Planaren garapenaren berri emango die bere asistentzia-eremuan garrantzitsutzat jotzen dituen langileei eta interes-taldeei.	-Eratze-ebazpena. -Bilera-aktak	
	4.3.2. Euskara Zerbitzu Teknikoa	Gerentzia eta Langileen Zuzendaritza	Zuzendari gerentea	-Hizkuntza-normalizazioko prozesuan egin beharreko eginkizun tekniko espezifikoak behar bezala egiteko, Barakaldo-Sestao ESik Euskara Zerbitzu Tekniko bat izango du, eginkizun hauekin: 1) Hizkuntza Normalizazioko Plan Teknikoaren normalizazio-neurrien plangintza egitea, koordinatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea. 2) Testuak egokitzea, zuzentzea eta itzultzea (enpresa homologatua / Euskara Zerbitzu Korporatiboa) 3) Gestio administratiboak (Langileen Sailaren laguntza)		-Urteko programa-kontratua.

4.4. Corpusaren kalitatea eta itzulpen-politika	4.4.1. Idatzizko komunikazioen kalitate- eta funtzionaltasun-irizpideak	Langileen Zuzendaritza	Langileen zuzendaria	-Idatzizko kalitateko komunikazioak sustatuko dira, hau da, testu zuzenak, originalak, egokiak eta argiak erabili behar dira, egitura logikoa eta diseinu zaindua dutenak, eta azken helburua ulermen ezin hobeia izatea dutenak. -Bi hizkuntzen funtzionalitatea izango da kontuan; beraz, dokumentu elebidunetan euskarazko testuak lehentasunezko lekuan egon behar du eta tipografia bidez nabarmendu behar da.	-Idatzizko komunikazioak sortzeari dagokionez, EAEko Administrazio Orokorreko Euskararen Erabileraren IV. Normalizazio Planeko irizpideak izan behar dira kontuan. Eta elementu grafikoei dagokienez, Osasun Saileko Identitate Grafiko Korporatiboaren Eskuliburuari erreparatu behar zaio.	Plangintza-aldi osoan
	4.4.2. Itzulpenak	Langileen Zuzendaritza	Langileen zuzendaria	-Testu-idazkuntzari eta itzulpenari buruzko protokolo bat idatziko da, itzulpen-lanak antolatu eta arintzeko. Oro har, langileei jakinaraziko zaie, eta, gutxienez, testuak edo dokumentuak sortzen dituztenek izan behar dute haren berri eta bete behar dute.	-Normalizazioaren helburuetako bat da eman beharreko mezuak bi hizkuntza ofizialetan sortzea eta hedatzea, itzulpenera jo gabe, eta benetako elebitasuna bultzatuz.	-Plangintzaren lehen urtean.
4.5. Euskararen erabilera sustatzeko eremuak		Langileen Zuzendaritza	Langileen zuzendaria	-Jarduerak, lantaldeak, ekitaldiak, ekimenak eta abar martxan jartzea aztertuko da euskararen erabilerari bultzada handiagoa emateko, hautematen diren beharren arabera eta langileek egiten dituzten proposamenen arabera.	-Euskararekin lotutako informazioa zabaltzea interesa duten langileei (ekitaldiak, kanpainak, hitzaldiak, 5 minutuko ikastaroa...)	Plangintza-aldi osoan

5. KAPITULUA: HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK, LEHENTASUNAK ETA DERRIGORTASUN-DATAK

Atala	Arduradunak		Neurriak martxan jartzeari buruzko zehazpenak	Helburuei eta haiek lortzeko datei buruzko zehazpenak	Jarraipena
	Zuzendaritza eskuduna	Kargua eta/edo arduraduna eta/edo unitatea			
5.1. Lehentasunezko unitateak eta derrigortasun-data duten postuen zerrenda	Langileen Zuzendaritza	Langileen zuzendaria	-Euskara Planaren II. Eranskina, Barakaldo-Sestao ESIko lehentasunezko unitateak eta derrigortasun-data duten langileak biltzen dituen, Osakidetza Giza Baliabideetako Zuzendaritzara bidaliko da erakundeko Euskara Plana osatzen duen gainerako informazioarekin batera.	-Euskarazko SAP egituraren kudeaketa eta segimendua egitea: 1) derrigortasun-datak esleitzea, aldatzea eta kentzea 2) erakundearen egiturarekiko baliokidetasuna	-2014ko maiatza (II. eranskina) -Urteko programa-kontratua Plangintza-aldi osoan
5.2. Lehentasunezko unitateetan aldi baterako kontratazioak egiteko irizpideak	Langileen Zuzendaritza	Langileen zuzendaria	-Lehentasunezko zat sailkatzen diren unitateetan aldi baterako kontratazioak Osakidetza Mahai Sektorialeko Kontratazio Hitzarmenean araututako irizpideen arabera egin behar dira	-Kontratazio Hitzarmena	-Plangintza-aldi osoan
Nahitaezkoak ez izan arren zerbitzu-erakunde bakoitzeko Euskara Planaren garapenean txertatzen diren derrigortasun-daten esleipena	Langileen Zuzendaritza	Langileen zuzendaria	-Kasu jakin batzuetan, Planean zehazten den gutxienezko gaitasunak duten derrigortasun-daten portzentajeak ezartzeko aukera azter daiteke, datu soziolinguistikoak, herritarren eskaria edo langileen ziurtapen-maila kontuan hartuta.	-Ahal den neurrian, pixkanaka, DDen kopurua handitzea.	-Plangintza-aldi osoan

ANEXO I DEL II PLAN DE EUSKERA DE OSAKIDETZA (2013-2019)

RESPONSABILIDADES, CONCRECIONES Y SEGUIMIENTO DE LAS MEDIDAS DE NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA DEL II PLAN DE EUSKERA DE OSAKIDETZA EN LA OSI BARAKALDO-SESTAO

En el presente anexo se recogen las concreciones y adaptaciones de las medidas de normalización incluidas en el Plan General de Euskera de Osakidetza, aprobado por el Consejo de Administración de Osakidetza el 3 de diciembre de 2013, a las características de la OSI BARAKALDO-SESTAO.

- (1) Cargo / responsable / unidad para la implantación, desarrollo y seguimiento de la medida
- (2) Concreciones sobre la puesta en marcha de las medidas (breve descripción de la medida, secuencia de actuaciones, comunicación, agentes implicados, modo de aplicación...)
- (3) Concreciones sobre los objetivos a conseguir y las fechas de consecución de los mismos
- (4) Concreciones sobre el seguimiento de las medidas: modo, periodicidad, implantación de medidas correctoras...

CAPÍTULO 1: IMAGEN Y COMUNICACIÓN

Apartado	Responsables (1)		Concreciones sobre la puesta en marcha de las medidas (2)	Concreciones de objetivos y fechas de consecución	Seguimiento
	Dirección competente	Cargo y/o responsable y/o unidad			
1.4. Rotulación 1.5. Cartelería 1.6. Papelería	Dirección Económica	-Responsable de Servicios Generales. -Mandos intermedios (JUAPs, jefes de servicio, supervisoras...)	-Análisis de las medidas adoptadas hasta el momento y creación de un protocolo de rotulación, cartelería y papelería basado en las normas del II. Plan Euskera y el Manual de Identidad Corporativa de Osakidetza. -Comunicación a los mandos intermedios	- Durante el primer año tras la aprobación de este Plan: revisión y corrección	-Revisión anual de la rotulación, cartelería y papelería.

1.4. Internet, Intranet y redes sociales	Gerencia	Gestores de Intranet	-Asegurar navegabilidad y acceso a los contenidos en las dos lenguas oficiales. Todos los menús y principales contenidos serán bilingües. -Comunicación a los gestores de Intranet de las normas recogidas en el punto 1.4 del II. Plan de Euskera	-Durante el primer año tras la aprobación de este Plan: conseguir navegabilidad en las dos lenguas oficiales.	-Revisión anual
1.5. Revistas y boletines	Gerencia	Responsables del Boletín y Revista	-El Boletín y la revista serán bilingües e incorporarán, cuando sea necesario, noticias únicamente en euskera relacionadas con el Plan de Euskera. -Se seguirá distribuyendo la revista en papel Osatuberry, dirigida a profesionales y también a los pacientes/usuarios, para que esté disponible en salas de espera, lugares comunes para los trabajadores...	-Comprobar en todos los números que el lector puede elegir idioma de lectura	Todos los números
1.6. Anuncios, publicidad y campañas institucionales	Gerencia	Responsables concretos en cada caso	En todos los anuncios y campañas de publicidad se empleará el euskera y el castellano	-Cumplir los criterios	Todos los anuncios y campañas
1.7. Actos públicos, jornadas...	Gerencia	Responsables concretos en cada caso	-Se adoptarán las medidas necesarias para garantizar la presencia del euskera en las convocatorias y programas de actos, jornadas, presentaciones, talleres... en los saludos y despedidas, introducciones, resúmenes, documentación...	-Se analizará la posibilidad de poder utilizar el servicio de interpretación simultánea ofrecido por Osakidetza, para cuando la relevancia del acto lo requiera.	Todos los actos

1.8. Saludos y primeras frases en la recepción de pacientes y usuarios	Todas direcciones	Mandos intermedios (JUAPs, jefes de servicio, supervisoras...)	-Revisión y difusión del protocolo de atención en las lenguas oficiales ("Criterios de uso oral del euskera"), para poder identificar la lengua en la que usuarios/familiares/pacientes quieren ser atendidos, realizando los saludos y primeras palabras en euskera. -Realización de cursos de Trebakuntza (Plan bienal) utilizando las Guías de Atención Primaria <i>Harrera euskaraz</i>, en las que se recoge el vocabulario y las expresiones más frecuentes en la recepción a usuarios, consejos...	- Revisión y difusión del protocolo a los mandos intermedios, y posteriormente éstos a los trabajadores durante el primer año del Plan. - Avance de esta medida también en relación a los cursos de Trebakuntza.	- El seguimiento y evaluación del cumplimiento de esta medida lo realizarán los mandos intermedios, integrándola en las pautas de trabajo habituales de la unidad
